



ORDIZIAKO UDALA



EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU ETA NORMALIZATZEKO UDAL ORDENANTZA



ORDIZIAKO UDALA



ATARIKOAK

Euskal Herriko autonomi estatutuan xedatutakoaren arabera, euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, Euskal Autonomi Elkarteko hizkuntza ofiziala da, gaztelera bezala, eta hiritar guztiek dute berau ezagutu, nahiz erabiltzeko eskubidea, Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunei dagokielarik bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta arautzea, hala nola berauen ezagutza segurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak erabaki eta erregulatzea.

Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea aipatu Autonomi Estatutuko 6.artikuluari xedatutakoa garatzera dator, euskararen erabilera arautzen baitu. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, berriz, aipatu Legearen haren, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen ditu.

Administrazio bakoitzari dagokio aipatu arau eta xedapen orokorrak bere jardun eremuan aplikatzea, eta aplikazio horretarako arauak eman eta bitartekoak ezartzea. Horixe da, hain zuzen ere, Ordenantza honen xedea, hots, indarrean dauden xedapen orokorrak Ordiziako Udalaren jardun eremuan hezurramitu eta aplikatu daitezkeen arauak eman eta betearaztea.

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta gaztelania bezala ofiziala izateaz gain, Euskal Herri osoaren ondare da. Hori horrela, hiritar guztien elementu integratzaile izan behar du, eta Ordiziako herritar guztientzat hala izan dadin saiaturiko da Udala. Beste hitzetan esanda, euskara Ordiziako Udalean eta udalerrian normaltasunez erabiliko den egiazko komunikabide izan dadin nahi du Udalak, eta horretarako behar diren neurriak hartuko ditu.

Indarreango araudiaren eta, halaber, euskararen erabilpena araukatzeko oinarrizko legeri buruz Auzitegi Konstituzionalak emandako ekainaren 26ko 82/1986 Epaiaren arabera, hiritarrek hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten eskubidea bermatzea, eta aipatu hizkuntzen ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzea dagokie botere publikoei. Ordiziako Udalak bere gain hartzen du erantzukizun hori. Hortaz, Udalaren barne-funtzionamenduan, nahiz Udalaren eta herritarren arteko harremanetan, hala nola udalerriko bizitza sozialean euskararen erabilpena normalizatzeko udalak burutuko duen jardunerako arau-esparrua definitzen da Ordenantza honen eskutik.



ORDIZIAKO UDALA



I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Euskara, Euskal herriaren berezko hizkuntza dena, Ordiziako Udaleko eta udalerriko hizkuntza ofiziala da.

2. Artikulua

Aplikazio orokorra izan dezaten eman diren eta indarrean dauden lege, nahiz arauen eta Ordenantza honetako xedapenen arabera erabiliko du euskara Ordiziako Udalak, nola bere barne-funtzionamenduan, hala herritarrekiko eta organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan, euskararen erabilera normalizatzea helburu nagusizat duela, beti ere.

3. Artikulua

Euskara eta gaztelania ofizialak badira ere, hainbat eta hainbat urtetan euskarak jasan duen zokoratze prozesuaren ondorioz, berdintasun sozialetik urrun daude. Hortaz, eta bi hizkuntza ofizialen berdintasun soziala lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio Ordiziako Udalak euskarari.

4. artikulua

Euskal Herriko hiritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ezezik, erabiltzeko eskubidea, nola hitzez, hala idatziz. Ondorioz, Ordiziako Udalak, indarreango legeriak orohar onartutakoen ildotik honako eskubideak aitortzen dizkie espreski hiritarrei:

- a.- Udalarekin eta bere menpeko Organismo orekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- b.- Udalak antolatu eta/edo gestionaturiko ikasketak oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- c.- Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.
- d.- Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea.



ORDIZIAKO UDALA



II. ATALBURUA.

UDALAREN BARNE FUNTZIONAMENDUAN EUSKARAREN ERABILPENA SUSTATZEA

A- *Udala eta bere jurisdikziopeko erakundeetako barne funtzionamenduari buruzkoak 86/1997 Dekretuak adierazitakoen arabera.*

5. Artikulua

Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu aurreko artikuluetan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen. Hortaz, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik, laneko hizkuntza ere izango da euskara Ordiziako Udalean, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

6. Artikulua

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 17.artikuluaren xedaturiko lau helburu mailakatueteriko hirugarrena hartzen du beretzat Ordiziako Udalak. Beraz, administrazio-atal elebidun izendatuko ditu jendaurreko, gizarte-izaerako eta izaera orokorreko administrazio atalak.

7. artikulua

Udala eta bere jurisdikziopeko erakundeetako langileen euskara prestakuntza.

Udalak lanpostuen hizkuntza eskakizunak aurkitzen diren lanpostuen zerrenda kontuan izanda, langileen euskalduntze, alfabetatze eta trebatze egitasmoen helburuak betetzearren beharrezko neurriak hartzen eta betetzen jarraituko du, langile bakoitzak bere maila eskuratzean, Udalak definitutako guneelebidunetan bere eguneroko lana euskaraz egin ahal izateko eta, pixkanaka ordenantza honek aipatutako eta legeak jasotako zerbitzu eta administrazio-atal guztietan sare euskaldunak jar daitezen.

Esandakoaren guztiaren definizioa 86/1997 Dekretuan xedatutakoaren eta aurrerago eman daitekeen araudiaren arabera egingo da.

8. artikulua

Langile berrien hautaketa

Ordiziako Udalak 86/1997 Dekretuak kasurako arautzen dituenei jarraiki egingo ditu langile berrien kontratazioak, nahiz lanpostuak betetzekoak direnak, nahiz langileak hartzekoak.



ORDIZIAKO UDALA



Horrela, lanpostu bat betetzeko nahiz, lanpostu batean sartzeko derrigorrezkoa izango da lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzea derrigortasun data egunerako, 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikuluan aurre ikusitakoaren kalterik gabe.

Bete beharreko lanpostuaren hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez denean, merezimendutzat hartuko da euskaraz jakitea, eta apirilaren 15eko 86/1997 dekretuan adierazitako puntuaziorik gehiena emango zaio hautaketa saioetan.

Udalak kontratatutako bestelako langileak – enpresak, zein norbanakoak- udalean edo udalaren menpeko erakunde batean lanean arituz gero, kontratatutako eginkizunaren eta udalarekin edo bere menpeko zerbitzuekin eduki behar dituzten harremanen arabera dagozkien hizkuntza eskakizunen pareko gaitasuna dutela garantiza dezaten eskatuko die Udalak.

Lehiaketetan derrigorrez euskaraz egin beharrekoak ez diren azterketak, edozein gairi dagozkionak direla ere, bi hizkuntzetan aurkeztuko zaizkie izangaiei, euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera izan dezaten. Halaber, epaimahaikideek azterketak zuzentzeko behar besteko euskara maila eduki beharko dute.

9. artikulua

Bulego, Zerbitzu eta Sailak

9.1. Herritarrak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean jardun dezakeenez Udalarekin, Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten herritarren aukera bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu Udalak. Hari honetatik, lehenik eta behin, aukera hori egiten duten herritar multzoa identifikatuko du. Eta euskara hutsean zuzenduko zaie harremanak hizkuntza horretan izan nahi dituztenei, 10/82 legearen 8.2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horretarako hizkuntza kode bat sartuko da udal erregistroetan, Udalarekiko harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarrak identifikatu eta aurrerantzean horiekin administrazio harremanak euskaraz izateko asmoz.

9.2. Jendearekin harreman zuzena izango duten bulegoetan euskaraz ere egin ahal izatea bermatuko duen langile elebidun nahikoa egongo da. Horrela izango da 86/1997 Dekretuak jendaurreko atal izendatzen dituenetan. Gainontzekoetan, berriz, lanpostu zerrendan jasotako derrigortasun daten epeek ahalbideratzen duten neurrian bermatuko dira euskararako harreman aukerak.

Harremanak idatzizkoak direnetan, hala ere, hauek herritarrak aukeratutako hizkuntzan izan daitezten bermatuko du Udalak.



ORDIZIAKO UDALA



9.3. Espedienteak, amaieran, hasi diren hizkuntzan amaituko dira, joera, pixkanaka, tramitazio guztia hizkuntza berean egitea izango delarik, Udalaren baitako Erabilera Planak aurreikusitako modu eta epeetan beti ere.

9.4. Administrazio atal elebidunak – jendaurreko, gizarte-izaerako eta orokorrak euskaraz lan egin dezaten prestatuko dira; eta hizkuntza horretan lan egin dezaten beharrezko gerta daitezkeen neurriak ezarriko dira, zeintzuk Udalaren baitako Erabilera Planean jasoko diren.

10. artikulua

Udalbatzarrak eta Gobernu Batzordeak

Azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuak, 86. Artikuluan Udalbatzar eta Gobernu Batzordeei buruz zera arautzen du:

Kontuan hartuz organo guztien helburua euskara lanerako ohiko hizkuntza bihurtzea dela, Udalak bitarteko eta neurri guztiak hartuko ditu – Udalbatzarkideek harremanerako aukeratutakoaren arabera beti ere - organo informatibo, Gobernu Batzorde eta Udalbatzarraren deialdi eta aktak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatz eta zabal daitezzen.

Organo hauek hartutako erabakien gaineko jakinarazpenak euskarari lehentasuna – denbora, tamaina, kopuru eta lekuari dagokionean- emango dion era elebidunean egingo dira, 14. Artikuluan zehaztutakoari jarraiki euskara hutsean egiten ez den kasuetan. Errepikatzeak irenetan, gaztelania halako bi behintzat erabili beharko da euskara.

11. artikulua

Udal erregistroa, Erregistro Liburuak, Aurrekontuak, Aktak eta gainontzeko Liburu Ofizialak.

1. Udaletxera sartzen diren, nahiz Udaletxetik ateratzen diren dokumentuak idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira Udal Erregistroan. Bi hizkuntza ofizialetan idatzita daudenak euskaraz inskribatuko dira, erabilera planean zehatz daitezkeen neurrien kaltetan gabe.

2. Aurrekontuak, Akta Liburuak eta Udaleko antzeko Liburu Ofizialak jatorriz jasotako hizkuntzan idatziak izango dira, Erabilera Planean zehatz daitezkeen neurrien kaltetan gabe.

3. Jendaurrean erakutsi edo Egiatagiriatarako Euskal Herriko Komunitate Autonomoko edozein hizkuntza ofizialetara itzulpena bermatuko da.



ORDIZIAKO UDALA



12. Artikulua

Ohar, argitalpen, bando, araudi, ordenantza eta erabakiak:

Udalaren ohar, argitalpen, bando, araudi, ordenantza eta ebazpenak orotatzizkoak, nola ahozkoak- bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, euskarari lehentasuna emanez denbora, tamaina, kopuru eta lekuari dagokionean- eta Ordenantza honetako 14. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe. Errepikatzeokoak direnetan, gaztelania halako bi behintzat erabili beharko da euskara.

13. Artikulua

Inprimaki eta zigiluak.

Udalak eta bere menpeko organoek erabiltzen dituzten inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita inprimatuko dira, euskarari lehentasuna emanez eta bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan betetzeko moduan.

Halaber, Udalaren menpeko organismoen zigilu guztiak, nahiz barne funtzionamendukoak, nahiz proiektio publikoa duten agirietan estanpatzekoak, bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira.

Beti ere Udalaren baitako erabilera planean xedatutakoaren kalterik gabe.

14. Artikulua

Euskara soilik noiz erabiliko den.

- a.- Udalarekin harremanetarako euskara aukeratzen duten hiritar eta gizarte erakundeei bidaltzen zaizkien eskutitz, agiri eta jakinarazpenetan.
- b.- Euskara lanerako lehentasunezko hizkuntza duten herri administrazioei bidalitako idatzietan.
- c.- Errotulazio, seinaleztapen eta antzekoetan euskaraz eta gazteleraz idazkera tankerakoa denean.
- d.- Mezua piktogramen bidez adieraz daitekeenean.
- e.- Jakinarazi nahi den ekintzak – euskara normalizatzekoa...- eta jasotzailearen berezitasunak – euskararen ulermena bermatua dagoelako- horrela eskatzen duenean.



ORDIZIAKO UDALA



15. Artikulua

Kontratuak

Ordiziako Udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz idatziko dira. Dena den, kontratuan eskuhartzen duen beste alderdiak hala eskatuz gero, euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da.

16. Artikulua

Edozein motatako Institutuzio Ofizialekin komunikazioak.

Institutuzio ofizialetara bidalitako idatzizko edozein komunikazio euskaraz eta gazteleraez egingo da, euskarari lehentasuna emanaz eta 14. artikuluko b puntuan, zein Erabilera Planean xedatutakoaren kalterik gabe.

17. Artikulua

Kale izenak

17.1. Ordiziako udalerriko kale, bide, auzo, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, orohar, toponimoak, finkatuta ditu jada Ordiziako Udalak; eta hori, euskal, erromantze edo gaztelaniazko jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz egin du. Hori horrela delarik, Ordiziako udalerriko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspena egingo du Udalak, eginkizun horren ardura dagokion Erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera.

17.2. Izen hauek guztiak euskaraz idatziko dira erregistro, nahiz udaletxean bertan egiten diren aipamen guztietan, izenen euskal, erromantze edo gaztelaniazko jatorria errespetatuz beti ere.

18. Artikulua

Zerbitzuen errotulazioa eta seinalizazioa

18.1. Zerbitzuen errotulazioa eta seinalizazioa euskaraz eta gazteleraez egingo da. Nolanahi ere, euskarazko testua lehenetsiko da, nazioarteko arauak errespetatu eta ulergarritasuna bermatzearen kalterik gabe.

18.2. Euskaraz eta gazteleraez antzeko grafia duten hitz eta esamoldeak, erabilera zabala dutenean, euskaraz idatziko dira.



ORDIZIAKO UDALA



18.3. Nazioarteko sinboloak erabiliz piktogramen bidez argitaratzen diren zerbitzu, iragarki e.a.-k euskaraz errotulatu dira.

19. artikulua

Komunikabideetatik hedatutako berriak

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarki eta oharak bi hizkuntza ofizialetan emango dira ezagutzera, euskarazkoari lehentasuna emanez– denbora, tamaina, kopuru eta lekuari dagokionean-. Komunikabide hauei berri horiek bi hizkuntzetan ematea eskatuko zaie.

Udaleko informazioa eta publizitatea euskara hutsean egingo da, euskararen ulermena bermatzen deneko gizarte taldeak direlako, horretarako aukera dagoenean.

Euskarazko gizarte komunikabideak ere kontuan hartuko dira Udalaren mezuak argitara ematerakoan.

B- Herriko bizitzari dagozkionak..

20. artikulua

Kultur, kirol eta aisi elkarteei dirulaguntzak

Azaroaren 24ko 10/82 Oinarrizko Legeak xedatutakoaren arabera, herri-agintariei dagokie gizarte-eremu guztietan eta publizitatean euskara erabiltzeko neurri egokiak hartzea eta bitzta sozialaren luze-zabalean haren presentzia gehitu dadin laguntzea.

Hortaz, Ordiziako Udalak, aipatu xedearen harian eta bere jarduera eremuan, honako neurriok hartu eta betearaziko ditu:

20.1. Kultur, kirol eta aisi elkarteei dirulaguntzak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Ondorioz, Ordiziako Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan zabaltzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak, ahozkoak, zein idatzizkoak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, elebietan egiten duten kasuetan lehentasuna euskarari eman beharko diotelarik, bai kokaeran, luzeran, nola tamainan. Udal instalazio eta materialak

20.2. Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko dira. Udalak, beraz, pilotalekua, hitzaldi-aretoa, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta material erabiltzeko



ORDIZIAKO UDALA



baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horien berri emango die interesatuei, eta zehaztutako moduan betetzen dituztela zainduko du, fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenatariko bat izango delarik hizkuntzari buruzkoa ere.

Dirulaguntzak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da hori guztia, subentzio hartzaileek, subentzioa jasoko badute, derrigorrez bete beharko dutelarik.

21. Artikulua

Barraka eta zirkoak

Herriko festetako barraka eta noizbehinkako zirko edo antzekoetako idatzi, bozgorailu bidezko mezu, iragarki eta txartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera. Musikak ere euskarazkoa beharko du izan hein handi batean.

Aipatutakoak muntatzeko baimena emateko baldintzen artean hori ere azalduko da eta hala jakinaraziko zaie jabeei, fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.

22. Artikulua

Garraio Publikoa

Ordiziako garraio publikoetako inprimaki, ohar eta adierazpenak oro euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarari lehentasuna emanaz – denbora, tamaina, kopuru eta lekuari dagokionean- beti ere. Era berean, abiapuntua Ordizian ez eduki arren, udalerrri honetan geralekua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten adieraziko zaie.

23. Artikulua

Publizitate errotuluak

Udalak merkatal entitateei eta beste batzuri, izaera ofizialekoak ez direnei, emango dizkie dirulaguntzak euskara hutsean idatzitako errotuluengatik, honako irizpide hauen arabera:

23.1 Errotuluek zuzen idatzitakoak izan beharko dute, Euskara Zerbitzuak egiaztatuko duelarik.

23.2 Izena, edo izen-abizenak dituen errotuluak dira publizitate-errotulu gisa hartuko ondorio hauetarako.



ORDIZIAKO UDALA



23.3. Ezarritako dirulaguntzen berri emango die Udalak establezimenduetako jabeei, bai ireki berriei, baita daudenei.

Dirulaguntza portzentajeak urtero erabakiko dira Udalean.

24. Artikulua

Atal honetan xedatua betetzeko dohain eskainiko ditu Udalak bere Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta aholkularitza, eta horrela jakinaraziko zaie interesatuei. Euskara zerbitzuaren zeregina izango da, era berean, diruz lagundutakoen hizkuntza zuzentasuna zaintzea, eta horretarako beharrezko gerta daitezkeen bideak zeintzuk behar duten erabakitzea.

III. ATALBURUA

HERRIAN EUSKARAREN ERABILPENA DINAMIZATZEARI DAGOKIONEAN

25. artikulua

Gizarte-esparru ezberdinak euskararen bidean jarri

Euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal izan daitezen, gizarte bizitza euskalduntzeko saio bereziak egingo ditu Udalak, bai sektore ezberdinak euskalduntzeko prozesuak bultzatuz, bai haur, gazte eta helduentzako kultur eta aisi ospakizun euskarazkoak antolatuz.

Honela, Ordiziako haurrik gehien-gehienak euskarazko ereduan matrikulatuta daudela kontuan izanik. Udalak antolatzen dituen aisia-ekintza, antzerki, txotxongilo, hitzaldi eta bestelakoak euskaraz izango dira.

Kasu oso berezietan salbu, zeinetan justifikatu beharko den Euskara Delegazioaren aurrean, ekintza beste hizkuntzaren batean antolatzea aukera bakarra eta kalitate handikoa izateagatik.

Hala izango da 16 urtez azpikoentzat antolatzen diren ekintzetan. Hortik gorakoetan, herriko gazterik gehienek ere euskaraz badakitenez, eta urtetik urtera kopuru hori gehituz joango denez, ekintza horiek euskaraz izan daitezen neurriak hartuko dira.

Ekintzak zikloetan edo antzekoetan txertatuta datozenean, euskarazkoak %75 izango dira gutxienez gazteen kasuan (<30 urte), eta %50 helduentzat direnean.

Ekintza solteen kasuan, urteko programaketari erreparatuko zaio, urte osoko euskarazko ekintzak arestian aipatu portzentaletara iritsiko direla ziurtatuz.



ORDIZIAKO UDALA

Ekintzen antolatzailea Udalak diruz lagundutako elkarteren bat denean- kirol, kultur, nahiz erlijio arlokoa-, Udalak bultzatu eta saritu egingo ditu herriko sektore eta talde ezberdin hauek euskalduntzeko prozesuak.

Udaleko atal ezberdinek herriko kirol, kultur, aisia, nahiz erlijio arloko talderen baten jarduna eta antolatutako ekintzak diruz, nahiz bestelako baliabidez laguntzen dutenean, talde horrek Udalak finkatutako hizkuntza irizpideak bete beharko ditu.

Honela, Udal atalek, euskara zerbitzuarekin batera, talde hauen jarduera diruz laguntzeko ordenantza edota arautegia prestatuko dute eta bertan finkatuko dituzte hizkuntza irizpideak. Finkatutako irizpide edo baldintzetan beti ere ordenantza honetan arautzen dena errespetatuko da eta helburua izango da progresiboki artikulua honetan ematen diren irizpideen mailara heltzea.

26. Artikulua

Irakaskuntza

26.1. Ordizian ematen den irakaskuntza ez unibertsitarioan euskarazko eredua gero eta gehiago hedatu dadin saio bereziak egingo ditu Udalak, batez ere matrikulazio epeak irekitzen direnean. Era berean, eskola mundua edo eskolaumeen arteko giroa euskalduntzeko jarduera osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak; ikastetxeekin elkarlanean beti ere.

26.2. Irakaskuntza unibertsitarioari dagokionean, euskarazko ildoak bultzatzeko eta bereziki Ordiziako ikasleak euskarazko ildoetan matrikulatu daitezten ahalegin berezia egingo du Udalak.

26.3. Irakaskuntza araututik at, berriz, herritik kanpo antolatzen diren euskara hutsezko ikastaroak (UEUkoak, Barnetegiak, Itzulpen masterrak, Laneko euskarari buruzkoak eta gisa honetakoak) egiten dituztenei ere dirulaguntzak eman lekizkieke Udalak. Urtero erabakiko da laguntzaren portzentaia eta eskatu beharreko baldintzak.

27. Artikulua

Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzea

Hizkuntza normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusietarikoa Ordizian hitz egiten dakitenen kopurua gehitzea eta hitz egiteko gai direnak alfabetatzea denez, eta kontuan hartuz alde batetik Ordiziako biztanleriaren portzentaia handi batek ez dakiela euskaraz eta, bestetik, eskoletatik ere ez direla denak euskara behar bezala menderaturik irteten, eta, halaber, kontuan hartuz erantzukizun publikoa dela euskalduntzearena, helduen euskalduntze eta alfabetatzea laguntzeko ahalegin berezia egingo du Udal honek.





ORDIZIAKO UDALA



28. Artikulua

Literatur sorkuntza

Era berean, euskarazko sormena indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, bidezko irizten dituen zenbait ekintza burutuko ditu Udalak: Ordiziarrek euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak direla, literatur lehiaketak direla, etab.

IV. ATALBURUA

UDALAREN HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO AZPIEGITURA

29. Artikulua

Ordenantza honen aplikazio eta bere garapenerako etorkizunean har daitezkeen neurrien zuzendaritza eta jarraipenaz Udaleko Euskara Zerbitzua arduratuko da, Udalak bere antolamendu sistemaren barruan ezartzen duen Batzordeak edo/eta bidezko irizten duen beste zenbait udal organo politikok emandako irizpideen arabera jardungo duena.

Udaleko Euskara eta Hezkuntza Delegazioari dagokio gainontzeko organo erabakitzaileei Udalaren hizkuntza normalizaziorako aholkuak egin eta hartu beharreko neurriak proposatzea, Euskarako Zerbitzu Teknikoaren zeregina delarik erabaki eta programa horiek hezurmamitu eta beroien zuzendaritzaz arduratzea.

Era berean, Ordiziako udalerrian euskararen normalizazio lanetan diharduten koordinaziorako organo bat eratuko da. Organo hori, sektore ezberdinetan euskara normalizatzeko lanetan dihardutenen eztabaidarako elkargune izango dena, Ordiziako udalerraren hizkuntza normalizaziorako jardunaren ardatzak finkatu eta berrikusteko irizpideak proposatzeaz arduratuko da.

Ordenantza honen aplikazio eta garapenean eta hizkuntza normalizaziorako jardun orokorrean hizkuntza politikaren eskumena duten Erakundeekin elkarlanean arituko da Udala, eta oso bereziki Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzarekin eta HAEEEE-IVAPEkin.



ORDIZIAKO UDALA



XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa

Ordiziako Udalak sortu eta/edo bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntza normalizaziozko ikuspegia kontutan hartu beharko da, eta Udaleko Euskara Zerbitzua izango da, beti ere Ordenantza honen eta indarrean dagoen araudi juridikoaren ildotik, hizkuntza normalizaziorako ikuspegiaren presentzia berma dadin informatuko duena, Udaleko Zerbitzu eta Departamendu guztiek txostena eman dezan eskaera egin beharko diotelarik aipatu zerbitzuari. Guzti hori, erabakia dagokion udal organoak hartzearen kalterik gabe.

Bigarrena

Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenek, Ordenantza honetan jasotako xedapenak bereganatu egin beharko dituzte, beraiei dagokien guztian.

Hirugarrena

Udalak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Ordenantza honen emaitzen azterketa eta Ordenantzaren beraren berrikuspen orokorra egingo du indarrean sartu eta lau urtera euskararen normalizazioari buruzko legeria edo arautegi orokorraren, nahiz egoera soziolinguistikoaren aldaketaren ondorioz edota bestelako edozein arrazoiengatik lehenago berrikustea egoki ez baderitzo.

INDARGABETZEKO XEDAPENA

Indarririk gabe geratzen dira Ordenantza honen maila berekoak eta txikiagoak izanik, Ordenantza honetan xedatuarekin bat ez etorririk, kontrajarrita dauden erabaki guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezko diren xedapen eta programa berezi eta xehatuak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko organo exekutiboek.

Ordenantza hau, Udal Osoko Bilkurak bere 2000ko urriaren 26ko batzarrean behinbetirako onartu zuena, indarrean sartuko da toki jaurbidearen oinarriak arautzen dituen legeko 70.2 artikulua, Lege horretako 65. 2 artikuluekin erlazionaturik, xedatutakoari jarraiki, eta indarrean egongo da Osoko Bilkurak horren aldaketarik edo indargabetzea erabaki bitartean.